



## IRAKASLEAK EZ DIREN LANGILEENTZAT HOMOLOGAZIOA!

Asteartean, martxoaren 11ean, eguerdiko 12etan, irakaskuntza pribatuko ikastetxeetako 50 delegatu bildu zituen STEE-EILASek kontzentrazio batean, Bizkaiko Hezkuntza Lurralde Ordezkaritzaren aurrean, araututako irakaskuntza pribatuko ikastetxeetan lanean dauden irakasleak ez diren langileen egoera salatzen. Ez-irakasleen artean, batik bat honako kolektiboak sartzen dira: administrazioa, zerbitzu ezberdinak (atezainak, garbitzaileak, jantoki eta garraioko langileak...), ez irakasle tituludunak (Psikologoak, Hezkuntza Laguntzako Espezialistak...) eta Haur Hezkuntzako Lehen zikloan direnak (maisu-maistra, teknikariak, laguntzaileak...)

Ekimen honen bidez langile hauek jasaten ari diren diskriminazio egoerak (lansariak, lanaldia...) salatu nahi ditu STEE-EILASek eta **URRITASUNARI STOP A LA PRECARIEDAD** izeneko kanpainaren hasiera izan da. Ez-irakasleak 1992an Hezkuntza Sailak, enpresek eta araututako irakaskuntza pribatuetako sindikatuek (horien artean STEE-EILAS) sinatutako berdintze akordiotik kanpo geratu ziren, baita ordainketa eskuordetuaren sistematik at ere, sistema hau 1994ko urtarrilaren 1etik irakasleentzat bakarrik ezarri bait zen.

Egoera honetan erabateko ardura du Hezkuntza Sailak, berak langile hauen lansariak finkatzen dituelako hezkuntza-itunaren barruan finantzaketa modulua ezarriz. Adibidez, 2007. urteko modulua %2,7a igo zen kontzeptu honi dagokionez. 2008rako %3a aurreikusi dute, metatutako inflazioa %4,3koa denean.

STEE-EILAS sindikatuak uste du, Hezkuntza Sailak egoera zuzengabe hau bideratzeko pausu zehatzak eman behar dituela. Horregatik, kontzentrazioarekin batera, idatzi bat luzatu zion Bizkaiko ordezkaria den **Andoni Anasagasti**-ri, Hezkuntza Sailera bidera dezan. Idatzian bost proposamen zehatz jasotzen dira:

1. Irakasle ez diren langile guztientzat lansariaren berdintzeko prozesuaren hasiera.
2. Kolektibo honentzat ordainketa eskuordetuaren formula ezarri..
3. Gainontzeko lan-baldintzetako homologazio akordioa.
4. IRALE programan aldaketak ez-irakasleentzat liberazioak ahalbideratzeko.
5. Prestakuntza Plan bereziak diseinatu.

---

## GIZARTE EKIMENEN IKASTETXEEN 1. HITZARMENAREN MAHAIA

Asteartean, martxoaren 11ean, EAEko Gizarte Ekimeneko Ikastetxeen 1. hitzarmenaren mahaia osatu zen. Bilera hau, hasieran, hitzarmenaren mahaia bideratzeko besterik ez zen, baina, harremanak hartzeko bilera bihurtu zen, ELAK bere plataforma aurkeztu zuelako. Beste sindikatuok, gainera, aipatu genituen geureak. STEE-EILASek patronalen jarreraren aurrean bere egonezina azaldu zuen, hauek ez dituelako bete joan den urteko hitzarmenarekin batera aktan zeuden akordioak. 2008rako bi lehentasun finkatu zituen:

1. Itundutako akordioak betearaztea.
2. Irakasleak ez diren langileen lan-baldintzak hobetzea.

Hurrengo bilera: apirilaren 15ean.

ARABA: Fuente de los Patos 2-3.C	01001 Gasteiz	☎ 945 14 11 04	☎ 945 14 43 02	<a href="mailto:araba@stee-eilas.org">araba@stee-eilas.org</a>
BIZKAIA: Nikolas Alkorta 3 (Zabalburu)	48003 Bilbo	☎ 944 10 02 98	☎ 944 10 13 60	<a href="mailto:bizkaia@stee-eilas.org">bizkaia@stee-eilas.org</a>
GIPUZKOA: Baso-txiki 30-34 (atzealde)	20015 Donostia	☎ 943 46 60 00	☎ 943 45 36 27	<a href="mailto:gipuzkoa@stee-eilas.org">gipuzkoa@stee-eilas.org</a>
NAFARROA: Descalzos 72 (lonja)	31001 Iruñea	☎ 948 21 23 55	☎ 948 27 00 48	<a href="mailto:nafarroa@stee-eilas.org">nafarroa@stee-eilas.org</a>